

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

56/2020 Mozioa, uztailaren 20koa, trukatzeko modala bultzatu eta garraio publikoaren konexioak hobetzeari buruz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren VI. Batzordeak, 2020ko uztailaren 20an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

56/2020 Mozioa, uztailaren 20koa, trukatzeko modala bultzatu eta garraio publikoaren konexioak hobetzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera lan egin dezala lurraldeko garraio publikoko zerbitzuen konexioa hobetzeko, Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren 2020-2030 Planan ezarriko diren trukatzeko modaleko guneetatik.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aztertu dezala, Arabako Mugikortasunaren Agintaritzaren barruan, Vitoria-Gasteizko hiri-garraioaren eta Arabako Foru Aldundiaren hiri arteko garraio sarearen arteko trukaketa guneen erabilera sustatzeko jarduketak, lurraldean garraio publikoaren erabilera bultzatzeko helburuz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA